

**2024KO NAFARROAKO LANEKO
EZBEHARRREN TXOSTENA**

2025eko otsaila

**PATRONALAK ETA INSTITUZIOEK
GAIXOTU ETA HILTZEN GAITUZTE**

LAB · ESK · STEILAS · EHNE-etxalde · HIRU

1. SAR HITZA

Azken urte luzeetan Euskal Herriko langileria zerbitzu publikoen eraispen eta pribatizazioa jasaten ari da. Zerbitzu publikoak ez dira behar bezala garatu, eta orain, garapen hori indartu beharrean, pixkanaka ahultzeko hautua hartuta dute Hego Euskal Herriko instituzioak gobernatzen ari diren alderdi politikoei. Ez da egun batetik bestera gertaturiko eraldaketa, poliki eta tantaka egiten ari direna baizik. Pribatizazioan urratsak ematen eta zerbitzuen kalitatea okertzen ari dira, aldi berean, langileen lan baldintzak ere okertuz. Izan ere, zerbitzua langile publikoekin ematen jarraitzen duten kasuetan laneko gaitzaren edo inbertsio faltaren ondorioz zerbitzua eta lan baldintzak okertzen dira. Azpikontratatea erabakitzen duten kasuetan, langile horiek askoz ere lan baldintza okerragoetan kontratatzen dira. Argi dago langileon eta, oro har, jendartearen ongizatea baino kapitalaren edo enpresa zehatz batzuen etekina bilatzen dutela. Horrek ondorioak ditu Euskal Herriko langileengan.

Eraispen handienetakoa bizitzen ari den sektorea da osasungintza: itxaron zerrenda luzeak, ambulatorioetan zerbitzu eta baliabideak urritzea, telefono bidezko kontsultak, eremu batzuetako pribatizazioa... Osakidetza eta Osasunbidea ahultzearekin batera osasungintzako enpresa pribatuei ematen zaie bultzada. Batetik, sistema publikoa ahulduz eta zerbitzuaren kalitatea okertuz aseguru eta zerbitzu pribatuen kontratazioak gora egiten duelako. Bestetik, mutualitateei gero eta botere handiagoa esleitzen zaielako. Logika horretan onartu zuten mutualitateei eskumen gehiago ematea gaixotasun edota istripu arrunt batzuk artatzeko garaian.

Urteak daramatzagu osasungintzaren etorkizuneko dualizazioa salatzen, osasungintza sistemabikoitz bat garatzeko arriskua politika publikoak aldatu ezean: osasun sistema publiko ahuldua batetik, eta bestetik, gero eta indartuagoa dagoen osasungintza pribatua, ordaindu dezakeenarentzat. Tamalez, emaniko urratsen ondorioz gero eta gertuago daukagu agertoki hori. Gainera, Eusko Jaurlaritzako zein Nafarroako Gobernuak Osasun Sailek osasungintza indartzeko diskurtsoa egin arren (lehenak Osasun Mahaia ere eratu du Osakidetza eraldaketaren inguruan aritzeko), ez dirudi benetako eraldaketarik planteatuko dutenik osasungintzaren inguruan, Jaurlaritzak gidatzen duen osasun mahaian adostasunak irudikatzea soilik bilatzen delako, benetako aldaketak bultzatzea baino, eta Nafar Gobernuaren kasuan pribatizazioari ateak irekitzeko Osasunbidearen izaera juridikoa aldatu nahi duelako.

Langileon osasun arretan horrelako arazoa izanik, prebentzioan ere atzera ari gara egiten. Prebentzio legea betetzeko baliabideak jarri eta patronal eta enpresen gain kontrolerako bitartekoak ezartzeko mugak agerikoak dira; horren ordez, patronalak absentismoaren inguruko diskurtsoa indartzen du, fokoa langileengan jarritz. Egunero langileak gaixotzen jarraitzen duten bitartean, lan istripuak eta heriotzak egunerokoa direnean, patronalak bere ardurak ez betetzeaz gain, arazoa lekuz mugitu eta absentismoa arazo politiko bihurtu nahi du.

Laneko istripuak eta gaixotasunak bi arrazoi nagusirengatik gertatzen dira batik bat: **prebentzio neurri egokien gabezia eta enpleguaren prekarietatea**. Prekarietateak ere, beraz, eragin zuzena dauka laneko osasunean, gero eta sakonagoa da, eta gero eta langile gehiagori eragiten dio. Hego Euskal Herriko bi langiletik batek ez du nahikoa diru-sarrerarik bizitza duin bat garatu ahal izateko, eta emakumeak*, gazteak, langile migratu eta arrazializatuak eta aniztasun funtzionala duten langileak dira diru-sarrera apalenak dituztenak. Gainera, zaintza lan ez ordainduak oraindik ere nagusiki emakumeon gain egoteak lanaldi bikoitzak ahalbidetzen ditu, horrek guztiak lan osasunean dakartzan ondorio kaltegarriekin.

Patronalarentzat lan osasuna bermatzea ez da errentagarria, eta osasunaren arta zein prebentzioa ikuspegi merkantilista batetik garatzen da. Neurri egokiak behar ditugu lanean

gaixotu edota hil beharrik ez izateko, baina patronalak gaixotasun eta heriotza horiek asumitzea erabaki du, errentagarriagoa zaiolako hori prebentzio neurri egokiak garatu eta lan osasuna, alegia, bizitza erdigunean jarriko lukeen eredu bat garatzea baino.

Egun **Euskal Herriko instituzioak kudeatzen dituzten alderdi politikoek beste alde batera begiratzen dute eta ikuskaritzak ez du bere lana betetzen.** Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) eta Nafarroan NOPLOIk (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua) lan osasuneko plan estrategikoak egin dituzte. Orriak eta orriak idazten dituzten neurri eraginkor bakar bat hartu gabe, arazoaren arrazoiak joateko erabaki politikoak hartu behar baitira, baina ez dago borondate politikorik horretarako. **Laneko osasuna ez da izaten ari instituzioen lehentasun, ez prebentzioari dagokionez, eta ezta ondorengo artapenari dagokionez ere.**

Hezkuntzan ere administrazioak dituen osasun baliabideak eskasak dira. Langile askok urteak daramatzate mediku azterketak egin gabe, ez dagoelako mediku eta erizain nahikorik langile guztien kudeaketa egokia aurrera eramateko. Honetaz gain, lan karga handitu eta lan baldintzak okertzearen ondoriozko estresak, antsietateak eta beste mila arazok gora egiten duten bitartean, langileen arazo psikosozialak ez dira aintzat hartuak izaten ari, eta ikastetxeetan osasun mentaleko profesionalen presentziaren beharra geroz eta nabariagoa da. Hori guztia gutxi balitz, administrazioak, lana aurrera eraman ahal izateko lan poltsetatik langile publiko gehiago kontratatu beharrean, askotan enpresa pribatuak kontratatzen ditu langileen osasuna kudeatzeko.

Egoera honen aurrean, **LAB, STEILAS, ESK, EHNE-etxalde eta HIRU sindikatuek, lantokietan lan osasunerako eskubidea bermatzea lehentasunen artean** daukagu eta horren alde lanean jarraituko dugu. Zentzu horretan, honako borrokek indartuko ditugu:

2

- Lan istripuen erantzunaren eta osasun galeren kontrako dinamika indartu.
- Prekarietatearen kontrako borroka indartu eta ekintza sindikal berrituan lan osasunaren aldagaia txertatu. Egungo egoera hobetzearekin batera eredu berri baten alde egiten jarraitzen dugu.
- Mutualitateen kontrako gure lanarekin jarraituko dugu.

2. ONDORIO NAGUSIAK

- Aurtengo laneko ezbeharren datuek aurreko urteetako hausnarketa berresten dute. 2024 urteko istripuen datuek, 2023ko datuak gainditu dituzte bai sindikatuok kudeatutako datuetan zein datu ofizialetan. Ez da lan istripuak ekiditeko neurri eraginkorrik hartu, eta ondorioz, aurreko urteetako joera mantentzen da. Sektore jakin batzuetan istripu larri edo hilgarriak pairatzea errazagoa da, basogintza, eraikuntza, garraioa, industria, etab.

- Laneko gaitzei dagokionez Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE) azken unean jakinarazi dizkigu urte itxierako datuak nahiz eta oraindik ez diren ofizialki argitaratu. Jakina da baina mutualitateek egiten duten azpierreregistroak, iruzur ariketa lotsagarria jarraitzen du izaten. Ikerketa ezberdinek estimatzen dute estatuan ematen diren minbizi guztien %10eraino, lanak eragindakoak izan daitezkeela, aldiz Euskal Herrian gutxi batzuk dira aitortuak. Amiantoak gaixotutako langileen aitortza nekeza, askotan hil ostean iristen dena. 2024an **ASVIAMIE(EAE) eta ADAVAN(Nafarroa) amiantoaren kalteen inguruan lan egiten duten erakundeei esker hego Euskal Herrian 30 heriotzen berri izan dugu, hoietariko 6 Nafarroan. Laneko gaitzek eragindako heriotz horiek ez dira datu ofizialetan ageri.** Zer esanik ez jatorri psikosoziala duten arazoaren inguruan, modu nabarmenean sektore feminizatuei

eragiten diena, gaitz hauek ez daude aitortuak laneko gaitz bezala. Lanak eragindako gaixotasun muskuloeskeletiko gehienak, sektore feminizatueta intzidentzia handiagoa dutenak, kontingentzia arrunt bezala izendatzen dira enpresen ardura saihesteko. Laneko gaixotasunak ikusezintasun handienera daude kondenatuta oraindik, zer esanik ez emakumeen kasuan. Lan batzuk hil egiten dute, beste batzuk ez dute bizitzen uzten.

- Datu ofizialek errealitatea ezkututzen dute:

- Istripuen komunikazioa enpresak berak egiten du. Milaka istripu arin komunikatu gabe geratzen dira eta langileak botikinean edo lanorduz kanpo anbulategietan artatzen dituzte.
- Istripuen kalifikazioa ez da irizpide objektibo batzuen baitan egiten, ez direlako irizpide horiek legalki araututa. Beraz, Mutualitateko sendagileak erabakitzen du istripu bakoitzaren larritasunaren izendapena, teoriarik teknikoak, baina gure ustez, Mutualitateak markatutako irizpide enpresarialeak. Beraz, ezin dugu ondorio fidagarrikerik atera gai horri dagokionez. Laneko istripuak igo egin dira oro har, baina istripu arin eta larrien bilakaera aztertzeke zailtasunak ditugu.
- Azken urtean **Mutualitateen ariketa zital berri bat** azaleratzen ari da indar handiz. **Enpresek aitortutako eta komunikatutako istripu traumatikoak ez onartzea**. Adibide larriak daude, **enplegu zentru berezietan** kasu: **istripu traumatiko nabarmenenak ere ez dira lan istriputzat onartzen**. Horretarako Mutualitateek, langilearen aniztasun funtzionala baliatzen dute eta enpresaren arduratik aldentzen dute lesioa. Iruzur horrek, baja arrunta tarteko, langilearen soldatan du eragina eta askotan borondatezko altak eskatzera beharturik ikusten dira ekonomikoki itota geratzen direlako.
- Mutualitateen iruzurrarekin jarraituz, **laneko heriotzen ukazio** kasu bat aipatuko dugu. Joan zen irailaren 16ean Irunberrin eraikuntza lanetan ari zen 42 urteko langilea aldamiotik erori eta zauri larrien ondorioz hil zen. Hasiara batean ofizialki lan istripu bezala kudeatu zen arren, **Mutualitateak Osasunbideak eginiko autopsiaren datuak eskuratu zituen eta hauek baliatuz eragin laborala ukatu zuen istripu arrunt kalifikatuaz. Mutualitatearen praxiak printzipio prebentiboak hankaz gora ipintzen ditu istripuen multikausalitatea baztertuz, honekin lanak eragindako arriskuak ezkutatu eta neurriak integratzea eragotziz.**
- Adibide horiek eta beste hainbatek erakusten dute **absentismoa ke kortina bat** dela eta **arazo nagusia laneko arriskuak** direla, patronalak legedia urratuz eragiten dituen arriskuak, emaitza latzekin: **64 hildako eta 102.000 istripu traumatiko**.
- Sindikatuok lan istripuz hildako 64 langile zenbatu ditugu; aldiz, administrazioak 47 heriotz aitortu ditu. Gobernuak hainbat amarru erabiltzen dituzte heriotzak ezkutatzeko, auto istripuz hildako langileak ez aintzat hartu, heriotz ez traumatikoak saihestu, eta gero eta argiago ikusten ari garen bezala istripu traumatikoak ere onartu gabe.
- **Laburbilduz: Mutualitateek saihestu ezin ditzaketan istripuak soilik dira onartuak**, edozein aitzakia erabili dezakete istripuen jatorri laborala ukatzeko. Hori datu ofizialtzat hartzen dute gobernuak eta patronalak amarrua baliatzen du absentismoaren gaia aireratuz benetako arazoa, laneko osasun galera, ezkutatzeko.

- **Heriotza ez traumatikoen faktore laborala ukazina** da. Azken urteetan jendartean eman den intzidentzia kardiobaskularren beherakada nabarmenak ez du islada berdina izan lan munduan. 2006tik gaur arte Estatu espainiarrean bihotzekoak jota hildakoen kopurua %40 jeitsi da, eta Hego Euskal Herrian ere joera antzekoa izan dela pentsa liteke. Hau, orokorrean, bizitza joera osasuntsuagoen ondorioa dela esan dezakegu. Aldiz, Hego Euskal Herriko langileria aktiboan bihotzekoen intzidentziak 2006ko kopuruak mantentzen ditu. Ulertu dezakegu, beraz, laneko faktoreek, estresa, gero eta erritmo altuagoak, presioa, prekarietatea, etab, eragin nabarmena dutela heriotz mota honetan.

- **Emakumeen* lanaldi bikoitzak eragin zuzena dauka lan osasunean.** Oraindik ere emakumeak* etxeko eta zaintza ardurez neurri handiagoan arduratzen dira, enpleguaz gain etxeko eta zaintza lanak eginez lanaldi bikoitzera kondenatuak daude. Presioak eta **estresak osasunaren galera dakar, eta arazo muskuloeskeletikoak** ere nabarmen igotzen dira kasu horietan.

- Gizarte segurantzian afiliatutako langileen %70 zerbitzuen sektorean dihardu eta etengabe gorantz doa kopurua. Zerbitzuek gero eta pisu handiagoa izatearekin batera, lehen sektoretik gero eta urrunago dago jendartea eta ekoizpen prozesu gutxiago du; hori horrela, istripuek beheranzko joera izan beharko lukete, baina ez da horrela izaten ari.

3. EMAKUMEEN* EGOERA IKUSEZIN

Laneko istripuen ondoriozko datuak aurkeztean emakumeen* eta sektore feminizatueta langileen osasun galera eta heriotzak ikusezin uzteko arriskuan eror gaitzke berriz ere. Laneko osasunaz ari garenean ere, emakumeen* errealitatea ikusarazteko saiakera berezitua egin behar dugu. Izan ere:

- **Sektore feminizatueta gaixotasun profesional gehienak ez daude aitortuta eta ez dira kontuan hartzen:** izan zeregin errepikakorrek eta karga-zereginekin lotutakoak eta sistema muskulo-eskeletikoan eragin zuzenak dutenak, izan aitortu gabeko zaintza lanei lotutako arrisku psikosozial guztiak, osagai emozional oso altuak dituztenak. Estresarekin lotutako gaixotasun maila ia bi aldiz handiagoa da emakumeetan* (gizonekin alderatuta). Hori, aldi berean, bihotzeko gaixotasunekin, muskuloeskeletikoekin, depresioarekin eta akidurarekin lotzen da (NIOSH 2018), baina gehienetan gaixotasun arrunt gisa tratatzen dira, patronalen mutualitateetara jotzen dugunean sistematikoki ukatzen baitute gaixotasun horien laneko jatorria.
- **10 urtean, emakumeen* laneko gaixotasunak % 44 gehitu dira** eta hori aitortutakoak baino ez dira, badakigulako askoz gehiago direla aitortu gabeak, baina gertatzen diren prekarietate egoerengatik eta patronalen mutuek patologien lan-jatorria ukatzen dutenez, errealitatea askoz larriagoa da.

Esku artean dugun txostena aztertzerako garaian, beraz, emakumeen* lan osasunaren urraketen ikusezintasuna kontuan hartzeko elementua izango da.


4. IPAR EUSKAL HERRIAN DATU OFIZIALIK EZ

Lurraldetasunaren aitortza ofizial ezaren beste aurpegi bat da lan osasunaren inguruko datuak Akitania zabalean ematen diren datu orokorretan disolbatzea. Frantziaren administrazioaren hautu politikoa da aitortza eza, euskal nortasuna ezabatzearen helburuarekin. Ezinbestekoa da lurraldetasuna errespetatzea euskal herritarroi dagozkigun eskubideei bide emateko, beste askoren artean, lan osasunean ere bermeak eskaintzea. Ez dezagun ahaztu, urtero ezagutzen ditugu lan heriotzak bertan ere, iaz 5, aurten aldiz ez, nahiz eta Lapurdiko arrantzale bat itsasoan hil den eta

“kanpoan” izan den zenbatua.

5. LAN ISTRIPU HILGARRIAK

LAB, STEILAS, ESK, EHNE eta HIRU sindikatuek 2024an lan istripuetan zenbatutako hildako langileak 64. dira; horietatik 38 EAEn gertatu dira, 17 Nafarroan, eta beste 9 atzerrian edo itsasoan hildako euskal langileak dira. Kopuru hori ezagutza izan dugun istripu hilgarriena da, gehiago ere izan litezk



2023

- Garraiolariak 4 langile
- Errepidean istripuz 5 langile
- Industrian 2 langile
- Eraikuntzan 2 langile
- Ez traumatikoak 2 langile
- Bortxakeriaz 1 langile

2024

- Garraiolariak 9 langile
- Industrian 7 langile
- Eraikuntzan 4 langile

2024

Istripu hilgarrien zehaztasunetan sartuta:

- Ez traumatikoak 9 langile
- Kolpeak/harrapaketak 5 langile
horietatik makinekin zerikusia: 4 langile
- Errepidean (In itinere/in mision) 8 langile
- Altueretatik erorita 4 langile

Berriro datuek berresten dute **sektore jakin batzuetan istripuz hiltzea errazagoa dela: basogintza, industria, garraioa, eraikuntza, lehen sektorea, etab.**

Sektore horietako batzuetan araudi berezitua izanik ere, hilkortasun tasa nabarmen altuagoa da. Nahiz eta azken urteetan aktibitate arriskutsuetarako lan osasunerako araudia egokitzen joan den, oraindik ere istripu tasak oso altuak izaten jarraitzen dute. Aztertutako istripuen atzean beti araudia ez betetzea gailentzen da.

Aztertzekoa da ere **eremu azpikontratatuan izaniko heriotza kopuru altua**. Behin eta berriz salatu dugu azpikontratazioaren eraginez prekaritatea eta lan baldintzen okertzea areagotu egiten dela, eta lan osasunaren bermea ez da salbuespen bat. Azpikontratazioak patronalaren gastuak murriztea du helburu, langileen lan baldintzen bizkar. Azpikontratetako langileen lan osasuna bermatzea, beraz, patronalaren kezken artean azkenetarikoa da.

Bestalde, ohiko istripuetatik haratago **heriotza “ez traumatikoek” presentzia oso garrantzitsua** dute, arazo kardiobaskularrek sortuak, hain zuzen, istripu hilgarrien %34a Nafarroan.

Historikoki, bai patronalak bai administrazioak “heriotza natural” bezala izendatu dituzte, baina denbora pasa ahala eta datuen ezagutza zabalagoa izanik, laneko faktoreen zerikusia gero eta nabarmenagoa da. Istripu multikausalak dira, pertsona bakoitzaren berezko faktoreez gain, bizi ohiturek ere badute beren eragina. Lanak eragindako faktore garrantzitsuenen artean, **estresa eta arrisku psikosozialak dira beste osagai garrantzitsua errealitate honen atzean** eta azken urteetan hoberantz egin beharrean okerrera egin dugu, nabarmen. Egun, **Osalanek zein NOPLOIk, euskal langileriak pairatzen duen lehen arrisku faktore bezala aitortzen dituzte arrisku psikosozialak.**

Azken 15 urteetan, Espainiako estatuan (jendarte osoan) arazo kardiobaskularrek eragindako heriotzek behera egin dute nabarmen Osasun Ministeritzaren arabera. 2006 urtean 22.028 heriotza izatetik, 2021ean 13.463 izatera. Aldiz, lan munduan ematen diren heriotza ez traumatikoek ez dute beheranzko joera erakutsi, batzuetan igo ere egin dira. **Gainera, kontuan izan behar dugu laneko**

orduetan hildakoak soilik daudela kontabilizatuta. Kotizatzen ari den langile kopurua areagotzeak ez luke inondik inora justifikatuko heriotza ez traumatikoen kopuru hori, jendarte osoan ematen ari den beheranzko joera horrekin konpentsatuko litzake hein handi batean. Honela, laneko arrisku faktoreen eragina nabaria dela adierazi behar dugu, urtetik urtera estresa eta arrisku psikosozialak gero eta ugari eta bortitzagoak dira, eta horrek heriotza ez traumatikoen kopuru altuan eragina du.

Bataz beste langileen heriotzen %30 eragiten duen arrisku faktore horren inguruan Osalan eta NOPLOlek izugarritzko lana dute egiteko eta lanak eragindako faktoreen kontrolean eskuhartzeko. Ezin dugu onartu, orain arte bezala “heriotza natural” modura kudeatuak izatea, nahiz eta tamalez aipatu erakundeek eskema horietan jarraitzen duten.

Langile kopurua aintzat hartuta, basogintzak aurten ere datu latzak utzi ditu Euskal Herrian: hainbat zauritu larri eta hiru hildako Euskal Herria osoan, tartean langile nafar bat. Urtez urte sektore arriskutsuena dela erakusten jarraitzen du. 1.000 langile inguru daude langintza horretan eta heriotza tasa oso altua izaten jarraitzen du. Lan baldintzak oso gogorrak dira eta patronalaren partetik lan osasunerako araudiaren betetze eza oso normalizatua dago. OSALANek eta NOPLOIk urtero garatzen dituzten gomendio planen porrotak heriotz zerrenda elikatzen dute. Aurten intersindikaletik hainbat ekimenen ostean neurri batera bat proposatu diegu Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiei, baita Gipuzkoako Batzar Nagusiei ere; gaur arte erantzunik ez dugu jaso.

Garraiolarien egoerak ere aipamen berezia eskatzen du, gero eta estuagoa da. Sektoreko langileen baldintzak urtetik urtera gogortzen ari dira. Nazioarteko merkatuek, estatuen inongo babes neurrik gabe, lan baldintzak kaxkartzen dituzte, sektore eta lanbide globalizatu horretan. Nafarroan eta Gipuzkoan sektoreko hitzarmena 2008tik berriro gabe dago, horrek dakarren prekarizazioarekin. Hitzarmenen berritzea lan osasunean hobetzeko neurri garrantzitsuenetarikoa da.

Iaz Nafarroan 4 garraiolari hil ziren lan-istripuz, aurten 9. Horietatik 3 istripu “ez traumatiko” izendatuak izan dira, sarri kamioian gelditu, kabinan zeudela gertatutako ezbeharrak. Lanaldi luzeek, estres maila altuak, lan sedentarioa izateak, digitalizazioaren bitarteko kontrol zorrotzak eta presioak eragin latzak ditu sektorean, istripu traumatiko edota ez traumatikoak pairatzeko agertoki ezinhoba da garraioa.

Aipagarria da, batetik, hildako garraiolarien adina. 50 urtetik gora zituzten ia denek. Sektorea zahartzen ari da, ez dago erreleborik, ez dago garraiolari gazterik, lan-baldintzak ez direlako batere onak. Sektoreko jubilazio adina segurtasun ikuspegitik erregulatzeko beharra dago, beste ofizio batzuetan egin ohi den bezala, 60 urtetan kokatuaz.

Eta hildakoak gertatzean ez daitezela lan-istripuen estatistika ofizialak murrizten saiatu. Administrazioak ez ditzala heriotza natural edo errepideko trafikoko ezbehar gisa hartu. Lan istripuak dira, argi eta garbi. Garraiolaria lanean ari zirela gertatzen dira.

Industria sektoreak 7 hildako utzi ditu aurten Nafarroan, iazko kopurua nabarmen gaindituz. Azken urteetan salatzen gatozen moduan istripu horietako asko makina erremintaren araudia betetzen ez delako sortzen dira, aurten 4 hildako. Aurten ere, harrapatzeagatiko istripu eta kolpe istripu larriak eman dira, eta guztiak izan dira makimen araudia bete ez duten kasuak. Errealitatean, inork ez du kontrolatzen araudia behar bezala betetzen denik, enpresaren borondatearen esku geratzen da praktikan. Konparazio bat egite aldera, ez dago Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT)rik makinetan, autoetan gertatzen den bezala. Honela, langileontzako eskuragarri dauden makina kopuru izugarri batek ez luke balizko makinentzako IATA pasako. Ondorioa gure bizitzarekin ordaintzen dugu.

Industrian ere istripu ez traumatikoen eragina aipagarria da eta honekiko antzematen den lanarekiko lotura ere, aurreko paragrafoan aipatu dugun bezala.

Eraikuntzak 2024an 4 hildako utzi ditu Nafarroan, 2023ko datuen bikoitza. Hala, 2023ko datuek erakusten zuten beheranzko joera eteten dute 2024koek. Eraikuntzako heriotzek lotura zuzena izan ohi dute altueretako erorketekin eta aurten 4 hildako utzi dituzte erorketek, hoietariko 2 izan dira sektorekoak. **Eraikuntza, basogintza eta garraioarekin batera, sektorerik hilgarrienen artean dago.**

Lehen sektoreak 2 hildako utzi ditu 2024 honek. Nafarroan ohikoa da baratz eta soroetara mugitzeko modu prekarioan eginiko desplazamentu kopurua altua izatea. Aurten bi hildako horiek baratzetara pistaz zihoazela auto istriuz hil dira. Orain 3 urte txirrindaz zihoala hil zen baratzetako langile bat auto batek jota; esan bezala, sektoreak prekaritatea du arrisku faktore nagusi.

Errepideetan (in itinere/in misio) hildako langile kopuruak gora egin du 2024 urtean, 15 heriotzen berri izan dugu. Nafarroan gertatu dira istripu horietako asko, 8 hain zuzen. Joan zen apirilaren 28an Iruñeko Gazteluko Plazan ekintza batekin salatu genuen bezala. Nafarroan ematen den zentralizazioak egunero desplazamendu kopuru izugarria eragiten du, eta horren atzean errepideko lan istripu kopuru handia dago. Zentralizazioak erabaki politiko suntsitzaile bati eragiten dio, herriak eta aranak ustutzen dituena, Nafarroaren beraren izaera apurtuaz. Sindikatuok horren aurrean neurri sorta bat mahai-gaineratu genuen, Gobernuaren aldetik inongo erantzunik eman ez bada ere, gaur arte.

DATU OFIZIALEN INGURUKO IRAKURKETA:

Datuak xehetu eta aztertzen hasi aurretik, adierazi behar dugu, nahiz eta administrazioak istripu larri baten abisua jaso, naiz eta enpresak berak komunikazioa egin (legez derrigorrezkoa da), batzuetan ez dituzte heriotza horiek ofizialki jasotzen ikerketa prozeduren aitzakiapean, edo autopsian edozein zirrikitu bilatuz istripuaren jatorri laborala ukatzeko. Arestian aipatu dugun bezala, aurten altueretako erorketa baten jatorri laborala ukatu dute mutualitateek Nafarroan autopsiaren datuak baliatuz. Horri batu behar zaio laneko orduetan gidatzen edo in-itinere istripua asko ere ez direla taula ofizialetan isladatzen.

Heriotza istripuen konparaketa

Nafarroan datu ofizialek; 20 sindikatuok 26*
Nafarrak eta nafar enpresetakoak:

	2024		2023		2022		2021		2020	
	Datu ofizialak (azaroa arte)	Sindikatuok	Datu ofizialak	Sind.	Datu ofizialak	Sind.	Datu ofizialak	Sind.	Datu ofizialak	SIND
Nafarroa	20	26	11	12	12	20	13	20	11	11
GUZTIRA	47	64	41	59	38	69	48	68	38	73

6. LAN ISTRIPUAK


	Baja gabeak			Bajadunak			Hoietatik larriak(baja)			Hilgarriak		
	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira	EAE	NAF	Guztira
2013	45.159	13.251	58.410	27.769	6.410	34.179	157	57	214	40	12	52*
2014	45.790	12.302	58.092	27.909	6.874	34.783	156	55	211	30	9	39*
2015	50.828	12.478	63.306	30.012	7.599	37.611	176	62	238	37	15	55*
2016	51.675	13.448	65.123	31.397	8.828	40.225	165	67	232	40	13	53*
2017	48.634	13.806	62.440	33.333	9.290	42.623	199	59	258	41	13	54*
2018	47.110	13.670	60.780	34.181	9.816	43.997	217	66	283	46	21	67*
2019	46.137	14.392	60.529	36.870	12.174	49.044	206	97	303	31	15	46*
2020	36.204	11.010	47.214	29.979	9.948	39.927	196	77	273	59	11	70*
2021	38.282	12.781	51.063	34.606	11.455	46.061	210	79	289	48	20	68*
2022	37.351	12.257	49.608	36.291	12.079	48.217	252	88	354	43	20	63*
2023	37.764	11.944	49.708	36.057	12.478	48.535	154	67	221	30	11	41*
2024*	37.651	11.458**	49.109**	40.375	12.502**	52.877**	201	68**	269**	27	20***	47***
Guztira	522585	152797	675382	398779	119453	518079	2289	842	3145	472	180	655

* Hildako kopuru ofizialetan, soilik enpresa erkidegoan bertan dutenak aitortuak dira, ez bertan hildako beste lekuetako langileak.

**2024ko Nafarroako datu ofizialak azaroa artekoak dira, beraz, 12 hilabetera ponderaturik dago irakurketa osatzeko

***Nafarroan Azaroarteko heriotza datu ofizialak

ISTRIPU ARINEN BILAKAERA AZKEN HAMARKADAN (Baja gabeak eta bajarekin)



Hegoaldeko administrazioek eskaintzen dituzten datu ofizialak patronalak ekoitziak dira. Istripuen zein laneko gaixotasunen (kontingentzia profesionalen) komunikazioa patronalak mutualitateen bidez egiten du. Mutualitateek aplikazio informatikoak erabiliaz, Nafarroan Delta sistema eta EAEn IGATT, Gizarte Segurantzza, Osakidetza zein Osasunbideari jakinarazten diete kontingentzia profesionalen intzidentzia. Beraz, patronalak jokalaria eta epaile lanak egiten ditu eta datuak nahieran faltsutzeko aukera du. Soilik modu horretan ulertu dezakegu administrazio publikoek laneko istripu, heriotza eta laneko gaixotasunen aurrean duten azpierregeroa. Bai Osalango bai NOPLOI-ko kontseiluetan patronaleko ordezkariak soilik ukatzen du azpierregero hori, beste guztiek, administrazioko ordezkariak barne, aitortzen dute azpierregeroa.

Lan istripu arin eta larriak:

Lan heriotzak estaltzea ez da erraza, sindikatuok baditugulako baliabideak horiek zelatatzeko, heriotzak albiste izan ohi direlako. Aldiz, istripu arin eta larriak ezkutatzeko askoz errazagoa da eta enpresen zein mutualitateen erabakien esku dago datuen amarrua.

Honela, Patronalak Nafarroako administrazioari agindutako datuen arabera, istripuen egonkortzea ikusi dugu.

Egonkortze horren inguruan hausnarketa bat: joan zen NOPLOIko kontseiluan goi mailako teknikariek zein arduradunek aitortu zuten Mutualitateak inoiz baino istripu gehiago ukatu dituztela nahiz eta enpresak berak parte igorri. Beraz, datu ofizialak ezin dira seriotasunez aztertu, erreferentzia bezala erabili soilik.

Lan istripuak EAEn	2024	2023	2022
Bajadunak	40.375	36.057	36.291
Bajagabeak	37.651	37.764	37.351
Birgaixotzeak	1.855	1636	1593

Lan istripuak Nafarroa garaian	2024	2023	2022
Bajadunak	12.502*	12.478	12.079
Baja gabeak	11.458*	11.944	12.257
Birgaixotzeak	387*	476	462
GUZTIRA Hego EH	101.986	98.243	97.978
Birgaixotzeak guztira	2.242	2.112	2.055

BIRGAIXOTZEAK.

Mutualitateko sendagileek langileak sendatu aurretik emandako alten erakusle dira, lanak eragindako aldikako ezintasun bat pairatzen duten langileak osatu gabe lanera itzultzera behartzen dituzte, osasun printzipioen kontra. Mutualitateen lehentasuna ez dela langilea osatzea, baizik eta lehenbaitlehen lanera itzultzea. Ebidentzia horren aurrean, ezintasunak behartuta, mutualitateko sendagileek berriro ere baja eman behar izango lukete, beren praxi okerra agerian utziz. Hori, baina, oso gutxitan izaten da errekonozitua eta gehienetan langileek osatu gabe itzuli behar izaten dute lanera, mutualitateko sendagileek irizpide ekonomizistak hobesten dituztelako. Zer esanik ez, istripuen ukazioa zabaltzen ari denean, enpresako medikuen eskuetan soilik denean birgaixotzea onartzea, are eta gehiago da ukatua. Langile gehienak famili medikura joan behar izaten dute eta baja arrunta errezetatzen zaie lana egiteko gai ez direlako.

ISTRIPU LARRIAK

Datu "ofizialek" erakusten dute istripu larrien aitortza testimoniala dela. Nafarroan 2024an mutualitateek jakinarazitako istripu horietatik soilik 68 kalifikatu dituzte larri bezala. Larritasuna mutualitatearen sendagilearen kriteriopean kalifikatzen da, hau da, gaur den arte ez dago inongo arau edo legerik larritasunaren parametroak zehazten dituenik, eta hori publikoki salatu beharrekoa da. Beraz, larri kalifikaturiko istripu guztiak larriak direla ez du inork zalantzan jartzen. Galdera da arin kalifikatutako zenbat ote diren larriak.

Nafarroako Gobernuak uda atarian argitaratzen du urteroko ezbeharren txostena. Bitartean datu mugatu batzuk argitaratzen ditu webean (soilik istripuak). Dena den, abendua bitarteko laneko gaitzen datu ofizialak eskuratu ahal izan ditugu. Datu horiek ere mutualitateek ekoizten dituzte eta administrazioak bere egiten ditu, ontzat emanez.

Mutualitateek istripu larriak ez dituzte larri bezala kalifikatzen, ahal den heinean ez dute bajarik ematen; ahal duten neurrian laneko istripu batean sorturiko edozein arazo edo lesio kontingentzia arrunt gisara kalifikatzen saiatzen dira. Horietan arazo muskuloeskeletikoek eta enpleguak eragindako arazo psikologikoek daramate faltsutze daturik altuenak.

Beraz, hori guztia jakinda ere, datu ofizialek erakusten digutena oso larria da eta benetako egoera are larriagoa.

7. LANEKO GAIXOTASUNAK

Zalantzarik gabe, **laneko gaixotasunena da lan munduan dagoen iruzurrik handiena lan osasunari dagokionean**. Mutualitateek lanak sortutako gaixotasunak Gizarte Segurantzara bideratzen dituzte modu prozedimentatuan. Honela, patronalak bere irabaziak bermatzeko, langilerian sorturiko gaixotasunak Gizarte Segurantzak bere gain hartu behar ditu mutua patronalek beren tratamendu eta prestazio ardurei bizkar emanez. Langileriaren eskubide galera eta jendarteari egiten zaion iruzurra kontrolatzeko tresnarik ez dago. Patronala da erabakia hartzen duena.

Horren aurrean, langileok ibilbide juridikoak abiatu behar ditugu gaixotasunak laneko gaixotasun direla aitortzeko. Trabaz beteriko bide luzea izan ohi dugu aurretik. Adibide gisara, prozedura juridiko horietan mutualitateek eramaten dituzten baliabideak eta peritoak diru publikoz finantzatuak dira, sistema are gehiago bihurrituz.

2024an aurkeztutako datuek gauza bakar bat adierazten dute, jasota ez dauden laneko gaixotasunak jasota daudenak baina askoz gehiago direla. Kopuruak aztertuz gero ikusi daiteke errealitate oso urrun daudela eta iruzurra guztiz nabaria dela.

Pandemiatik **arrisku psikosozialek eragindako kontingentziak lidergoa bereganatu dute laneko arriskuen artean**. Ez dira laneko gaitz gisara onartzen eta **denak dira kontingentzia arrunt bezala izendatuak**, nahiz eta lanak eragindakoak izan. **Kopurutan, sistemaren iruzurrik handiena** topa dezakegu hemen.

EAE gaixotasunak	2024	2023	2022	2021	2020	2019
Bajarekin	1.558	1.573	1.360	1.340	-	-
Baja gabe	1.723	1.768	1.469	1.360	-	-
GUZTIRA	3.281	3.341	2.829	2.700	2.390	3.158

Iruzur horri OMSk berak ematen dio dimentsioa, izan ere, **lanak sorturiko heriotza guztien %20 istripuek eragina da, geratzen den %80 gaixotasun profesionalek eragina** da eta datu hori modu nabarmenean ezkutaturik dago, gizarte segurantzara bideraturik, hain zuzen.

Aurten, ADAVANen arabera, soilik Nafarroan amiantoak 6 heriotz eragin ditu, ofizialki hoietariko bakar baten berri izan ez dugularik. Egun amiantoak eragindako gaitzekin bizi diren langileak dozenaka izan daitezke Nafarroan, gehiengo zabala errekonozitu gabekoa. Ikerketa ezberdinek estimatzen dute estatuan ematen diren minbizi guztien %10eraino, lanak eragindakoak izan daitezkeela. Beraz, datuek erakusten digute mutualitateek, gobernuen onespenearekin, darabilten jokabide maltzurra.

NAFARROA laneko gaixotasunak	2024	2023	2022	2021	2020	2019
Bajarekin	604	621	548	-	-	-
Baja gabe	857	833	771	-	-	-
GUZTIRA	1.461	1454	1319	1276	1217	1375

- Amiantoak hildakoak. Erregistroa. ASVIAMIE 24 hildako EAEn + 6 Nafarroan ADAVAN, 2024an.

2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	AZKEN 10 URTEETAN
20	27	21	40	36	32	14	13	26	24+6 Nafarroan: 30	259

Iturriak:

-EAE: ASVIAMIE

-Nafarroa: ADAVAN

Laneko minbizi gehienek errekonozitu gabe jarraitzen duten. Europako beste herrialdeekiko datuak oso baxuak dira, iruzur orokortuaren beste erakusle bat da.

Honela, lanak sorturiko gaitzen tratamendu eta kostu osoa gizarte segurantzaren eskutik doa eta nahiz eta beranduago laneko gaixotasun bezala errekonozituak izan mutualitateek ez dute diru hori itzultzen. Patronala beti ateratzen da irabazle, langileria galtzaile.

LAN ISTRIPUEK ERAGINDAKO HERIOTZAK 2024 (LABen kontaketa)

	DATA	ISTRIPUAREN TOKIA	ENPRESA	LANGILEA	ADINA	ISTRIPU MOTA
1	2024/01/06	Osera de Ebro (Zaragoza)	Transportes Goitia	P.M.U	-	Kamioi istripua
2	2024/01/09	Santurtzi	CISTERNAS DE ALSASUA S.L.	A.M.C.,	54	Ez traumatikoa
3	2024/01/9	Trapagaran	BOMLOY S.L.	K.R.P	29	Pabilioiko atea gainera erorita.
4	2024/1/10	Funes	Nekazaritza finka batean	A.K.	44	In mision
5	2024/1/15	Arribe/Araitz	Eraikuntza	W.A.C.	44	Altueratik erorita
6	2024/1/16	Funes	Industrias Bardi	D.J.P.	41	In itinere
7	2024/1/17	Cadreita	Garraiolaria	-	-	Ibilgailu astunen arteko talka
8	2024/01/18	Lezo	Eraikuntza enpresa	J.C.A.G	48	Erorketentzako sarea ipintzen ari zela erorita.
9	2024/01/19	Urizarra	Ofitas del Cerro de Santutis	-	53	Makina batek harrapatuta
10	2024/01/24	Rubia (Galizia)	Voith hidro	-	-	Makinak harrapatuta
11	2024/1/26	Tutera	Nekazaria	H.Z	36	In Mision Pista batean
12	2024/01/26	Pasaia	Pasaiaiko portua	I.G.I	47	Kamioiak harrapatuta
13	2024/01/26	Astigarraga	Gipuzkoako aldundia, errepide mantenua.	A. S. C. G.	59	Ez traumatikoa
14	2024/02/13	Durango	Porto Cubiertas	H. A. B. D. R.	45	Teilatu batetik erorita
15	2024/2/15	Olazti	Cementos Portland	I.R.I.	32	Gainera erori zaion materialak zapalduta
16	2024/02/18	Itsasondo	Garraiolaria	-	-	Otsailak 5ean jasandako istripuko zauriei ezin eutsi.
17	2024/02/26	Arrasate	Proyectos y obras Garci	R. M. P.	54	Igogailu baten arketara erorita
18	2024/02/27	Tutera	Renfe	A.O.J.A	57	Ez traum
19	2024/03/12	Huesca	Transportea ABYCER	G.I	46	Kamioiaren bolketea manipulatzean harrapatutik. Garraio.
20	2024/04/9	Arrasate	Orixol garraioak		25	Martxoaren 16an izan zuen istripuaren ondorioz. Zama gainera erori zitzaion
21	2024/04/10	Caceres	Añuri oicon	M.C.R	50	Ez traum
22	2024/4/14	Lleida (Katalunia)	Belgikako garraio enpresa. Langile nafarra	R.T	59	Ez traumatikoa

23	2024/04/14	Gasteiz	Autonomoa	A.A.C	54	Garaje baten garbiketan, makinak harrapatuta.
24	2024/04/17	Donostia	Pescados Akamar	Y.U.G	52	In-Itinere(Moto istripua)
25	2024/4/22	Arre	Garraiolaria	-	58	Errepideko istripua lanean ari zela
26	2024/04/29	Artzentales	Forestal Bejarano e Hijo SL	M.A.A	22	Zuhaitzak azpian harrapatuta
27	2024/5/13	Ejea de los Cabaleros, Zaragoza, (espainiar Estatua)	Lizarrakoa, Cerio Ensilados	A.L.	51	Kamioia iraulita
28	2024/05/17	Orereta	-	J.M.Z.O	61	In itinere (Motoz)
29	2024/05/27	Bergara	Embalan3	U.A.G	51	Kamioia kargatzen ari zela zama gainera etorrira
30	2024/05/27	Sestao	Autonomoa, Sirkus enpresarako lanean, azken hau Leroy Merlinek azpikontratatuta	D.A.P.O.	29	Egun batzuk lehenago izandako istripuak eragindako zaurien ondorioz, iturgintza lanetan zebilela leihotik erorita
31	2024/06/3	Atarrabia	Autonomoa	B.A.J.J	60	Ez traum, etxe baten eraberritzean ari zela. Eraikuntza
32	2024/06/21	Urnieta	Biharko Gipuzkoa	O.M.G	60	Ez traumatikoa
33	2024/6/26	Etzegarate	Patatas Gastaminza	S.G.B.	44	In mision, kamioi istripua
34	2024/06/30	Bergara	Lizarrako gaiteroak		67	Ez traum. Musikaria
35	2024/07/7	Kantauri itsasoan, kantabria parean	Hunekin Aski itsasontzia		56	Istripu traumatikoa
36	2024/7/9	Nafarroa	Nordex Ibérica,	I.M.N.	-	Ez traumatikoa
37	2024/07/11	Aizarnazabal	Hettich Iberia	S.H.	52	Ez Traumatikoa
38	2024/7/19	Iruñea	FCC	I.U.	-	Kamioitik erorita
39	2024/07/30	Amezketeta	Baserritarra	I.A.A	52	Traktorea iraulita
40	2024/08/5	Berango	Dos Campos, Bion Técnicas y Aplicaciones Constructivas, SL enpresak azpikontratuta	J.M.E.E	63	Zama buru gainera erorita
41	2024/08/14	Iurreta	Gestión Forestal Frías-ek Trabajos Forestales Arratia azpikontratatu eta azken honek, autonomo bezala azpikontratatu.	D.S		Basogintza, adarra gainera erorita
42	2024/8/22	Ataun	ARPANA FORMACION FORESTAL S.L.	B.L.S.	61	Zuhaitza gainera erorita

43	2024/08/15	Dakar	Arrantzalea PEVASA	P.M.S		Ez traumatikoa
44	2024/08/29	Amezketeta	Ibarra Argi Lanak, Aralar Paper Fabrikan	P.R.C	30	Makinak harrapatuta
45	2024/8/31	Arbizu	Proyectos y construcciones Lazken	I.D.J.A	55	Ez traumatikoa eta honen eraginez andamioetik erorita
46	2024/09/13	Pasaia	Berlan Berritze Lanak	J.M.B.P.	51	Ez traumatikoa
47	2024/9/16	Irunberri	Construcciones Imiriz-aldu	-	42	Altueratik erorita
48	2024/9/26	Lodosa	Garraiolaria	-	-	Kamioi istripuan
49	2024/09/30	Bilbo	Corral Agüero aseguruak	C.F.M.D	63	Ez traumatikoa
50	2024/10/4	Miranda de Ebro	Talgo	A.A.A	30	In itinere (irailaren 20an izan zuen istripua)
51	2024/10/07	Funes	Benid Food (Elaborados Naturales de la Ribers del Ebro)	H.H	29	Bezperan makina batek harrapatua
52	2024/10/15	Leoz	Net Zero	-	28	Altueratik erorita, zutabe batetik
53	2024/10/15	Loiu	Amiatek 3000	M.L.H	47	Altueratik erorita desamiantatze lanetan, teilatutik.
54	2024/10/18	Lizarra	Lamaison-eko langilea. Agralco-n (Lizarrako Alkoholategian) ari zen lanean	H.P.J	56	Eztanda baten ondorioz
55	2024/10/24	Abanto Zierbena	Viuda de Sainz	L.M.B.A	52	Motor batek jaurtikitako piezak jota (urriaren 17an izan zuen istripua)
56	2024/10/25	Zornotza	Compresores Dana-Air-eko langilea, Maderas Etxeari lantegian ari zena lanean	R.I.U	59	Altueratik erorita (urriaren 15ean izan zuen istripua)
57	2024/11/8	Amurrio	Construcciones Zamalloa S.L.ko langilea, Tubacex taldeko Aceralava lantegian ari zena lanean		57	Ez traumatikoa
58	2024/11/9	Bilbo	Autonomoa, Cafe Bar la Paradak kontratatuta	G.V.M	55	Kristalak garbitzen ari zela altuera batetik erorita
59	2024/11/11	Irun	Transportes Etxetrans 2000 SLE, langile eta enpresa Nafarrak.	J.R.M.M.	56	Ez traumatikoa
60	2024/11/18	Muskiz	SIEMSA, Petronorren findegian lanean ari zela	J.A.A	-	Ez traumatikoa
61	2024/12/9	Larrabetzu	TRANS JAYLO SA.	C.G.I	57	Kamioi istripua

62	2024/12/19	Laudio	TRANSMELEC	J.P.I.A.	60	Ez traumatikoa
63	2024/12/21	Santurtzi	Stinnes Zephir itsasontzia	V.S.	65	Ez traumatikoa
64	2024/12/30	Zornotza	Forest Trafic, SL	I.P.C.	41	Karga gainera erorita

***PATRONALAK ETA INSTITUZIOEK
GAIXOTU ETA HILTZEN GAITUZTE***

LAB · ESK · STEILAS · EHNE-etxalde · HIRU